

ZAINKETA ETIKA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEARI BURUZKO EKINTZAK EGITEKO IDEIA BATZUK

HAUR HEZKUNTZA	
EKINTZA	AZALPENA
<p style="text-align: center;">“Egun bat ...- bizitzan”</p> <p>Bizimodu eta proiektu ezberdinei buruzko joko sinbolikoa: norberaren burua, familia bat, emakume zahar bat, mutil gazte bat... aktibitate ezberdinak (zainketa, enplegua, aisialdia...) euren artean erlazionatuak. Zainketa eta enplegua pertsonen bizitzaren parte dira.</p>	<p>Mutilek zainketari buruzko jolasetan parte hartzen dutela ziurtatu. Zailtasunak dituztenekin bereizirik landu.</p> <p>Eremu eta ekintza ezberdinetan jolasean sortzen diren ardurak eta zereginei buruzko hitz edo aditz zerrendak, horma-irudiak, bit-ak... egin.</p> <p>Zainketa beste ekintza, zeregin eta erantzukizun pertsonalekin lotu.</p>
<p style="text-align: center;">“Nik zaintzen dut, zuk zaintzen duzu, neskak zaintzen du, mutilak zaintzen du...”</p> <p>Pertsona bakoitzaren garapenerako beharrezkoak diren familiako eta gizarteko zainketaren eginkizun buruzkoei ipuinak, irudiak, narrazioak, horma-irudiak, etab., emakumeak zein gizonak eginkizun guztietan agertzen direlarik.</p>	<p>Zainketa ez da bakarrik familiaren eginbearra, gizarte osoarena baizik.</p> <p>Ipuinetan zentzu, behar, esparru, momentu... ezberdinetan besteak zaintzen dituzten pertsonaiak aurkitu eta azpimarratu.</p> <p>Zainketarako errekurto sozialak azpimarratu: haur eskolak, zahar egoitzak, ospitaleak...</p> <p>Nola funtzionatzen dute? Nork egiten ditu lan horiek? Nork behar eta erabiltzen ditu? Zergatik? Etab.</p>
<p style="text-align: center;">“Nik zu mimatzen zaitut, zuk ni mimatzen nauzu”</p> <p>Maite-maite egin, lagundu, zerbait elkarrekin egin, ondoan egon, interesa jarri, galdetu eta entzun, hitz egin, besarkatu, barre egin... ahalbideratzen eta lantzen duten jolasak eta jarduerak.</p>	<p>Zainketa etxeko lanak egitea baino gehiago da. Arreta, hurbiltasuna, lagunartea, enpatia, denbora eta bizitza partekatzea, interesa, mintzamena eta elkarriketa... ere barne daude.</p> <p>Istorioak kontatuko dizkiegu. Binaka, taldeka... antzeztu behar dute gure kontaketa. Adibidez: “Gaua da, (neskak) ohera goaz. Gure aita hurbiltzen da (mutilak) eta tapatzen gaitu, laztantzen gaitu eta sorbalda berotzen digu, hitz egiten digu, ilea aurpegitik kentzen digu, ipuin bat kontatzen digu, musu bat eman eta joaten da”, etab.</p>
<p style="text-align: center;">“Nik egiten dut, zuk egiten duzu, neskek egiten dute, mutilek egiten dute...”</p> <p>Psikomotrizitate maila, tresnen eta materialen erabilera, trebetasunak, doitasuna, arreta, muntaia, desmuntaia... ahalbideratzen eta lantzen duten gorputzarekin egindako jolasak eta eskulanak.</p>	<p>Neskek parte hartzen dutela ziurtatu. Jolasteko zailtasunak dituztenekin bereizirik landu.</p> <p>Istorioak kontatuko dizkiegu. Binaka, taldeka... antzeztu behar dute gure kontaketa. Adibidez: “(neskak) Errepidetik goaz automobileraz. Ezagun bat (mutilak) agurtzen dugu. Gelditzeko keinuak egiten dizkigu, automobila gelditu eta automobileraz igotzen da. Gorpila zulatzen da. Automobila gelditzen dugu. Matxurazko seinalea jartzen dugu. Tresnak hartzen eta erabiltzen ditugu. Gorpila askatzen dugu. Gorpila aldatzen dugu. Automobileraz igotzen gara”, etab.</p>
<p style="text-align: center;">“Gizonek lan egiten dute, emakumeek lan egiten dute...”</p> <p>Lan esparru guztietan emakumeen eta gizonen ereduak irudikatzen dituzten ipuinak, irudiak, kontaketak, muralak, etab.</p>	<p>Enpleguei, lanbideei, tresnei, lantokiei, makinei buruzko hitz edo aditz zerrendak, horma-irudiak, kankak, marrazkiak, bit-ak... egin.</p> <p>Enplegua beste ekintza, zeregin eta erantzukizun pertsonalekin lotu.</p>

LEHEN HEZKUNTZA	
EKINTZA	AZALPENA
Haur Hezkuntzan jasotakoak.	Lehen Hezkuntzako curriculumari eta ikasleen adinari egokitu. Ezohiko enpleguak dituzten amak eta aitak, familiako zainketan parekotasunez eta erantzukidetasunez arduratzen diren gurasoak... gonbidatu edota elkarriketatu.
<p>“10 gauza garrantzitsuenak” Niretzat garrantzitsuen diren balioak. Neska eta mutil bakoitzak bi zerrenda egingo ditu: bat, gaurko bere bizitzan berarentzat oso garrantzitsuenak diren hamar gauza aipatzen; eta bestea, bere ustez heldua denean berarentzat oso garrantzitsuenak izango diren hamar gauza bilduz.</p>	<p>Nesken eta mutilen zerrendak berdinak dira? Zainketa dago mutilen Top 10ean? Eta enplegua nesken Top 10ean? Zergatik?</p> <p>Bere zerrendak egin ondoren, zutabe bat erantsi behar dute gauza bakoitzari ematen eta emango dioten eguneroko denbora jasotzeko. Badaude denbora ematen ez dioten gauza garrantzitsuak? Zeintzuk? Zergatik? Orduan, zergatik dira garrantzitsuak? Badaude denbora asko ematen diegun gauzak eta zerrendan ez daudenak? Zeintzuk? Zergatik?</p>
<p>“Familiaren ongizate eta bizitza kalitatearen zerrenda” Ikasle bakoitzak bere bizitza familiarraren ongizatea eta kalitatea bermatzen dituzten zainketa familiarraren erantzukizunak eta zeregin ezberdinen zerrenda egingo du. Zainketa etxeko lanak baina gehiago da. Norberaren eta taldearen bizitzaren ongizatea eta kalitatea da. Pertsona bakoitzarentzat eta gizartearentzat abantailak dira.</p>	<p>Zainketa etxeko lanak egitea baino gehiago da. Arreta, hurbiltasuna, lagunartea, enpatia, denbora eta bizitza partekatzea, interesa, mintzamena eta elkarriketa... ere barne daude. Bakoitzak bere zerrenda osatu ondoren, denon artean zerrenda bat egingo dugu. Bertan dauden lanetatik zeintzuk egiten dituzten gehienetan emakumeek? Zeintzuk gizonek? Zergatik? Beste era ezberdin batean egin daiteke? Zergatik? Zaintzen ikasi al daiteke? Zergatik? Nola? Non?</p>
<p>“Gure familien zuhaitz laborala” Neska eta mutil bakoitzak bere familiaren emakume eta gizonen enpleguak zerrenda batean jasoko ditu (izeba-osabak eta lehengusu-lehengusinak barne hartuz). Zerrenda laburpen bat egingo dugu belaunaldiz, datuak sexuaren arabera bananduz: 1. Amonak eta aitonak. 2. Aitak eta amak, izebak eta osabak. 3. Anai-arrebak, lehengusinak eta lehengusuak.</p>	<p>Belaunaldi bakoitzean emakumeek eta gizonek dituzten enpleguen ezberdintasunak aztertu. Hiru belaunaldiak konparatuz emakumeen eta gizonen enplegu ezberdinak aztertu: aldatu al dira gauzak? Zertan? Zergatik? Aldatzeko joera bat dago? Nola izango da gure nesken eta mutilen etorkizunean? Zergatik?</p>
<p>“Lanbide baten erradiografia” Neska eta mutil bakoitzak lanbide bat aukeratuko du eta azterketa lan sakon bat egingo du horri buruz: behar den prestakuntza (ikasketak), zertan datza lan hori, bere lantokia, erabiltzen diren tresnak, lanaren ordutegia eta lan baldintzak, lanbide hori egiten duten pertsona ezagunak, etab.</p>	<p>Ekintza bera bi aldiz egingo dugu. Lehenengoz, bakoitzari ikertu nahi duen lanbidea aukeratzea utziko diogu. Posiblea da lanbide batzuk errepikatzea. Lanbide berari buruzko agerpenak elkartuko ditugu. Lanbide batzuk nesken artean errepikatzen dira? Eta mutilen artean? Taula bat egingo dugu neskek aukeratu dituzten lanbideak eta mutilek aukeratu dituztenak alderatuz. Ikasleekin aztertuko dugu. Bigarren aldiz, ikasleekin zerrenda bat egingo dugu aurreko zatian ageri ez diren enpleguekin. Horietatik, bakoitzak bere etorkizunean egin lezake enplegu ezberdin bat aukeratuko du. Zergatik uste du egiteko gai izango dela? Zergatik ez? Bere ezaugarri pertsonalengatik? Bere sexugatik? Etab.</p>
<p>“Tresnak eta trebetasunak” Enpleguetan behar diren tresnak, eta batez ere, ikasketak, trebetasunak edo abileziak identifikatu.</p>	<p>Aurreko lanbideen zerrendan, zerrenda berri batean, filme, telesail, liburu, kontu... batean agertzen diren enpleguak aztertu.</p>

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)	
EKINTZA	AZALPENA
<p>Lehen Hezkuntzan jasotakoak.</p>	<p>Bigarren Hezkuntzako curriculumari eta ikasleen adinari egokitu.</p> <p>Eskolari eta lan munduari buruzko datu estatistikoak, ibilbide akademikoak, denboraren erabilerari buruzko datuak... gehitu. Errealitatea generoaren mito eta estereotipoekin alderatu.</p>
<p>“Ahalmen laboralak eta pertsonalak” Ohituraz emakumei egozten zaizkien ahalmenak (ordena, garbiketa, irmotasuna...) eta gizonei egozten zaizkienak (erabakitasuna, erreflexuak, egiteko azkartasuna) enplegu eta lanbide ezberdinekin lotu.</p> <p>Lanerako ahalmen edo gaitasun hauek pertsonaren sexua kontuan hartu gabe ikasi daitezkeela baieztatu.</p>	<p>Badaude emakumeek gehiago dituzten ahalmen edo gaitasun laboralak? Eta gizonek gehiago dituztenak? Zeintzuk? Bi zerrenda egin. Zeintzuk ikas daitezke? Eta zeintzuk ez? Zergatik?</p> <p>Zer lanbidetarako dira egokiak ahalmen hauek? Zerrenda bat egin. Gure gizartean emakumeek dituzten enpleguekin eta gizonek dituztenekin bat egiten dute? Zergatik? Emakumeek eta gizonek era berean ikas eta trebatu daitezke? Zergatik?</p>
<p>“Lanbideak, ezaugarriak eta ahalmenak” Lanbideek ezaugarri instrumentalak baino gehiago behar dutela azpimarratu.</p> <p>Adibidez, Mekanikak eta Medikuntzak ezaguera eta teknologiaz gain entzutea, erantzukidetasuna, ordena, garbiketa, komunikazioa, lan taldea... behar dituzte.</p>	<p>Gure ikasleen inguruko enpleguak kontuan hartuz, era askotako lanbideekin zerrenda bat egin. Lan hori egiteko langileak izan behar dituen ezaugarri eta ahalmenak erantsi lanbide bakoitzari. Adibidez: originala izatea, material ezberdinak ezagutu eta erabiltzea, zaintzea, hizkuntzak jakitea, makinak erabiltzea, etab. Zeintzuk ikas daitezke eta zeintzuk ez?</p>
<p>“Nire ezaugarriak eta ahalmenak” Emakumei eta gizonei egotzi zaizkien ezaugarrien zerrenda egingo dugu. Neska eta mutil bakoitzak bere ustez berak dituen ezaugarri eta ahalmenen zerrenda bat egiten du (bai emakumeen bai gizonezkoen zerrendatik harturik) eta lanbide eta enplegu ezberdinekin erlazionatzen ditu gaitasun horiek.</p>	<p>Nire sexuari emandako ezaugarriak hartu ditut? Eta beste sexuarenak? Zergatik? Zer enplegu eta lanbide motarako balio zaizkit? Lanbide eta enplegu horiek gustatzen zaizkit? Beste enplegu eta lanbide batzuk nahiago ditut? Zer ahalmenak behar dira horietarako? Ez dauzkat? Ikas ditzaket? Zergatik? Nola?</p> <p>Genero estereotipoak gainditu. Denok, bai mutilek bai neskek, emakumeen eta gizonezkoen ezaugarriak eta ahalmenak ditugu edota landu ditzakegu. Gure burua garatzeko eta enplegu batzuk lortzeko erabili ditzakegu.</p>
<p>“Nire bizitza... 15 urte barru” Aurkezpen orokorra edo hasiera labur bat idatzi behar dute eta, ondoren, 15 urte barru beren bizitzako aste egun bati buruzko kontaketa zehatza egin (asteazken batena adibidez).</p>	<p>Mutilen eta nesken proiektzioen laburpen bat egin. Laburpenak aztertu eta konparatu. Ezberdinak dira? Zergatik? Bai nesken bai mutilen proiektzioetan zainketaren etika eta enpleguaren zentraltasuna agertzen dira? Zergatik? Zein ondorioak izan ditzake horrek?</p>
<p>“Asteburu baten egunekoa” Aste batean ikaslearen asteburua, hurrengoan amarena (edo bere papera betetzen duenarena), hirugarrenean aitarena (idem). Arreta jarri eta idatziz (margotuz, argazkiz...) asteburuko egunekoa egin behar dute, bakoitzak egin dituen ekintza guztiak jasoz.</p>	<p>Hiru asteburuak konparatu.</p> <p>Zertan datoz bat? Denboraren erabilera bera egin dute? Zer egin du pertsona bakoitzak besteek egin ez dutena? Zenbat denbora dedikaturik? Zergatik? Bere sexuagatik? Bereko zaletasunagatik?</p>
<p>“Lan asteko ordutegia” Aste batean bere astea, hurrengoan amarena (edo familiako beste emakume batena), hirugarrenean aitarena (edo familiako beste gizon batena).</p> <p>Bere astean arreta jarri eta besteen kasuan familiarrei galdetuz, astelehenetik ostiralera ekintza guztiak ordutegi batean bildu.</p>	<p>Asteko hiru ordutegiak konparatu.</p> <p>Zein ekintzetan datoz bat hirurak? Denbora dedikazio berarekin? Denboraren erabilera bera egin dute? Zer egin du pertsona bakoitzak besteek egin ez dutena? Zenbat denbora dedikatuz? Ezberdintasunak daude? Zergatik? Bere sexuagatik?</p>

BATXILERGOA ETA FORMAKUNTZA PROFESIONALA	
EKINTZA	AZALPENA
Bigarren Hezkuntzan jasotakoak.	<p>Etaparen curriculumari eta ikasleen adinari egokitu.</p> <p>Emakumezko eta gizonezko lanari buruzko datuak (jarduera motak, kontratuak, jardunaldiak, lan kategoriak, langabeziaren inguruan), profil profesionala, formakuntza profesionalaren adarren datuak, hitzarmen kolektiboak, emakumezko eta gizonezko denbora erabileraren datuak... gehitu. Errealitatea generoko estereotipoen irudikari sinbolikoarekin alderatu.</p>
<p>“Rolaz aldatu”</p> <p>Neska eta mutil bakoitza esnatu eta orain bere familiako helduak direla konturatu dira, bakoitza bere ama edo aita dira eta beren lanen, familiaren, lagun... ardura hartu behar dute.</p>	<p>Ikasleak binaka jartzen ditugu. Bikote bakoitza bere familia aurrera ateratzeko antolatu behar da.</p> <p>Bikote bakoitzak bien artean dituzten anai-arreben kopuru adina seme-alabak izango ditu, edade berakoak. Nahi dituzten enpleguak izatea erabakiko dute.</p> <p>Nola bananduko dituzte etxeko zereginak (haurrak, osasuna, hezkuntza, arreta, konpainia...) eta enplegua, aisialdia...?</p>
<p>“Profesional emakume zein gizon baten itzala”</p> <p>Neska eta mutil bakoitzak bere inguruko pertsona bat aukeratuko du eta elkarrizketatu, grabatuko, jarraituko... du lanean ari den bitartean, aztertu eta klase-lagunen aurrean aurkeztuko du bere informea.</p>	<p>Lanbideko ezaugarri instrumentalak bakarrik ez ezagutzea, baizik eta egiteko egoerak, ordutegia, bateragarritasuneko erraztasunak eta zailtasunak, estatus soziala, lankideekin harremana... ere bai aztertzea.</p>
<p>“Lan bila nabil”</p> <p>Neska eta mutil bakoitzak aurkezpen gutun bat eta bere CV idatzi behar ditu gustuko duen enplegu bat eskatzeko.</p>	<p>Aurkezpen gutunak hausnarketa egiteko balio behar du: Zergatik eta zertarako enplegu bat bilatzea? zergatik pentsatzen du enplegu hori zehazki ondo egin dezakeela?</p> <p>Curriculumak bere ibilbide akademiko-profesionalaz gain (ikasketak, hizkuntzak, musika, kirola...) bere trebetasun sozialak, beste pertsonenganako jarrera positiboak bizitzako esparru guztietan (hartutako ardurak, enpatia, taldeko lana, ordezkartzako postuak...) balioan jarri behar ditu.</p>
<p>“Lan elkarrizketa ”</p> <p>Lehenengo ekintzatik hasi gaitezke edo egoera ezberdineko gidoi labur batzuk sortu edo prentsan ageri diren iragarki ezberdinak erabili.</p> <p>Ikasleek paper ezberdinak hartuko dituzte: elkarrizketagileen taldea (hiru pertsona) eta elkarrizketatuak (hiru pertsona). Helburua da elkarrizketak benetakoak izango balira bezala egitea da. Bakoitzak bere elkarrizketa prestatzen du, gidoiarekin edo prentsako iragarkiekin, CVrekin... Taldeak zein galderak egingo dituzte, pertsonak zein erantzunak emango ditu.</p>	<p>Guztiek biak egindo dituzte: elkarrizketa egiten duten hirurak gero elkarrizketatuak izango dira. Taldeak mutilez osatutakoak, neskez osatutakoak, mistoak mutil gehiagorekin... era guztikoak izan behar dira.</p> <p>Elkarrizketa ikasleen aurrean egingo da. Egin eta ondoren aztertu egin behar da. Nola sentitu dira? Zer izan da zailena? Trataera ezberdin jaso dute neskek eta mutilek? Jarrerak eta modu ezberdinak egon dira gizon eta emakume elkarrizketagileen artean? Zer ikusi du publikoak?</p>
<p>“Neska-lagun/mutil-lagun daukat eta Alemanian ikasteko/lan egiteko beka bat eskaini didate”</p> <p>Neska eta mutil bakoitza hipotesi honetatik hasi behar da, erabaki eta argumentatu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Beka aprobetxatu nahi du edo ez eta zergatik. 2. Nola antolatuko du bere bizitza (aspektu guztietan) onartzea erabaki badu. 	<p>Nesken eta mutilen artean lana eta harreman pertsonalaren lehentasunei buruz ezberdintasunak dauden ala ez ikustean datza. Nork jartzen duen bere bizitza proiektu pertsonala beste pertsona baten mendean eta nork ez? Batak amore ematen du ala biak moldatzen dira? Nork? Zergatik? Ze ondorioak izan daitezke?, Etab.</p>